# KULTURA 2.0 - Prestakuntza-pilulak: DOAKO ONLINE APLIKAZIOAK

## 2012ko urtarrila

*Kultura 2.0 ekimenaren barruan, «kultura 2.0 prestakuntza-pilulak» prestatzen eta hedatzen hasi da Kulturaren Euskal Behatokia, EAEn kultura-sektoreko enpresek eta profesionalek egindako eskaerei erantzun zehatza emateko asmoz.*


Inolako ikerketa edo azterketetara jo gabe ere, agerikoa da goraka doala Interneten edonondik aritzeko joera, bai eta eguneroko jardueretan informazio- eta komunikazio-teknologiak geroz eta gehiago erabiltzekoa ere. Bistakoa denez, mugikortasunera bideratutako sareen hobekuntzak, eta hardware-gailuek eta software-aplikazioek izandako garapenak asko lagundu diote kontsumitzaileen ohituran izandako bilakaera horri. Horren adibide dira smartphoneak, taulak eta era guztietako gailuetarako garatu diren web aplikazioak edo online aplikazioak.

**Pilula honetan, erabiltzaileek Internet bidez eskura ditzaketen aplikazioen, utilitateen eta zerbitzuen ikuspegi orokor bat ematen saiatuko gara**. Kontuan hartuta bilakaera etengabea dutela, gure asmoa ez da horien guztien direktorio bat egitea, eta bai, aldiz, irakurleari pista batzuk ematea, gaur egun dauden aukeren berri izan eta bere premiei hobekien egokituko zaizkion irtenbide teknologikoak aurki ditzan.

## Zer dira web aplikazioak, cloud computing, SaaS...?

"Web-aplikazioak" edo "online-softwarea" idatzi eta Interneten bilaketa egiten badugu, hainbat kontzeptu agertuko zaizkigu: "cloud computing" (hodei-konputazioa), "hosting", "ASP" edo "SaaS". Beharbada termino horiek inoiz entzunak izango ditugu baina, esparru horretan aditu samarrak izan ezik, ziurrenik ez dugu jakingo zer esan nahi duten. Kontzeptu horietako batzuk elkarlotuta daude eta sarritan alde txikiak egoten dira batetik bestera. Guri, erabiltzaile gisa, beste gauza batek ardura digu: zer probetxu atera diezaiekegun Internet bidez eskura ditzakegun aplikazio edo zerbitzuei.

Web-aplikazioa edo online-aplikazioa da oinarrizko kontzeptua. Honelaxe defini genezake, hain zuzen: **erabiltzailearen ordenagailuan instalatu behar izan gabe, Internet bidez erabil daitekeen aplikazioa[1].** Bestalde, askotan aipatzen da SaaS[2] (softwarea zerbitzu bezala) izenari loturiko online-softwarea ere. Esan behar da, ordea, Internet bidez eskura dezakegun online-software guztiak ez direla Saas, ez eta bertatik eskainitako zerbitzu guztiak ere.




1 Aplikazio batzuen kasuan, ordenagailuan softwarea ezarri behar da.

2 Software as a Service

## Zergatik erabiliko ditugu online-soluzioak?

Nahiz eta web-aplikazioen prestazioak geroz eta hobeak izan, eskuarki, mahaigainean erabil daitezkeen pareko aplikazioek (offline aplikazioak) aukera zabalagoak eskaintzen dituzte. Nolanahi ere, web-aplikazio horiek egokiak izan daitezke erabiltzaile gehienen premiei erantzuteko, eta gaur egun geroz eta erakunde eta partikular gehiagok aukeratzen dute softwarea zerbitzu bezala kontratatzea.

Eredu horren abantailak nabarmentzean, sarritan aipatzen dira malgutasuna, prozesuen hobekuntza, eraginkortasuna, eta dirua aurreztea lizentzietan, hardwarean eta mantentze-lanetan. Nolanahi ere, azken batean, eredu hori ohiko tresnen ordezko beste aukera bat baino ez da, eta erabiltzaileak berak erabaki beharko du kasu zehatz bakoitzean komenigarria izango al zaion. Hurrengo taulan, halako aplikazioen onura eta arazo nagusiak aurkeztuko ditugu.

| ONURAK | ARAZOAK |
|---|---|
| Ez dago aplikazioak ordenagailuan ezarri beharrik eta, ondorioz, disko gogorrean edo zerbitzarian lekua aurreztuko dugu. | Zerbitzu-hornitzaileekiko menpekotasuna dago, eta softwarearekiko eta datuekiko kontrola galtzen dugu. |
| Interneti lotuta dagoen edozein gailutatik eskura ditzakegu. | Datuen pribatutasunaren gaineko zalantza dugu, ez baitakigu DBLO egoki betetzen den. Horren harira, zerbitzu-hornitzaileak DBLO betetzeko neurriak hartzen dituela bermatzea komeni da.[1] |
| Hainbat erabiltzailek aldi berean eskuratu eta editatu dezakete fitxategi bera. | Interneterako konexioa behar dugu horiekin lan egiteko. |
| Plataforma anitzeko aplikazioak dira. Hau da, ez da behar sistema eragile zehatz bat eta, ondorioz, bateragarritasun-arazoak saihesten dira. | Biltegiratzeko lekua eta prestazioak mugatuta egon ohi dira, batez ere doako zerbitzuetan. |
| Eguneratzeak automatikoak izaten dira. | Mahaigaineko aplikazioek (offline) baino funtzionaltasun gutxiago eskaintzen dituzte. |
| Doako web aplikazio asko daude, eta ordaindu beharreko zerbitzuak merkeak izaten dira, normalean. | Aplikazio horietako asko ingelesez baino ezin dira eskuratu. |
| | Batzuetan, pluginak ezarri behar dira aplikazioak erabili ahal izateko. |

## Zer aplikazio erabil ditzaket?

Software-hornitzaileen orrialdeetan web-aplikazioen geroz eta eskaintza zabalagoa aurki dezakegu, geroz eta prestazio hobeekin. Ildo beretik, ehunka dira blog eta orrialde espezializatuak, eta bertan eskura dezakegu informazioa nahiz aplikazioetarako estekak. Adibidez, portalSaaS.com web-orrialdeak Internet bidez eskura ditzakegun aplikazioen direktorio luze samarra eskaintzen du, kategoriatan sailkatuta.

Ondoren, lagin moduan, geure irudia edo/eta produktuak sarean hedatzen lagun gaitzaketen doako tresna batzuk aurkeztuko ditugu, gure lanean integratzea komeni ote zaigun erabaki dezagun.

1 Segurtasunari eta DBLOri buruzko informazio gehiago aurki dezakegu honako esteka hauetan: Lehen urratsak Cloud Computing-ean, ETEentzat, Segurtasun-dekalogoa hodeian eta Datuak Babesteko Espainiako Agentzia. Hirurak ere “Gehiago jakin nahi baduzu” atalean aipatu ditugu

## Dokumentuak editatzea

| | |
|---|---|
| ZOHO Work. Online | Besteak beste, testu-editorea, kalkulu-orria eta diapositiba-editorea hartzen dituen aplikazio-multzoa da. Microsoft Office et Openoffice dokumentuak irekitzeko aukera eskaintzen du, eta hainbat erabiltzailek aldi berean edita ditzakete dokumentuak Internet bidez. Aplikazioak erabiltzeko, erregistratu egin behar da. |
| Google Docs | Tresna ofimatiko hori bateragarria da gehien erabiltzen diren formatuekin (Office, Openoffice), testu-dokumentuak, kalkulu-orriak eta aurkezpenak sortu eta partekatzeko. Hainbat erabiltzailek agiri bera online editatzeko aukera ematen du. Google Docs-en doako bertsioak muga batzuk ditu dokumentuen tamainari lotuta. |

## Irudiak editatzea

| | |
|---|---|
| pixlr PHOTO EDITING SERVICES | Photoshopen antzeko irudi-editorea da, baina funtzionaltasun gutxiagorekin. Facebookeko, Picasako eta Flickreko irudiak editatzeko aukera ematen du, baina erabiltzeko Flash Player plugina ezarri behar da. |
| LOGOTYPE MAKER | Logoak online sortzeko aplikazio erraza. |

## Bideoa

| | |
|---|---|
| VIDEO MATED | Promoziorako bideo laburrak sortzeko online tresna. Doako eta ordaindutako aukerak ditu, guk nahi dugun bereizmenaren eta txantiloien arabera. |
| YouTube | Nahiz eta aplikazio hau batez ere bideoak online erreproduzitu eta konpartitzeko erabili, bideo-editore erraz bat ere badauka, moldaketa txikiak egiteko. Funtzio horri buruzko informazio gehiago eskura dezakegu youtuberen blogean. |

## Audioa

| | |
|---|---|
| SOUNDCLOUD | Audioa online banatzeko plataforma bat da. Erabiltzaileek aukera dute bertan abestiak grabatu, aplikazioaren webera igo eta erreprodukzio-zerrendak sortzeko, horrela euren musika-proiektuak landu, sustatu eta banatu ahal izateko. Doako bertsioa eta bertsio ordaindua ditu. Arazo nagusia zera da: Mac-en baino ezin dela erabili. |
| SPREAKER | Podcastak zuzenean sortu, partekatu eta hedatzeko tresna. Nahaste-mahai bat eta soinu- eta musika-liburutegi bat ere hartzen ditu. |
| iVOOX audioKiosco | Podcastak publikatzeko plataforma bat da. Online audio-fitxategiak partekatu, deskargatu eta entzun daitezke bertan. Beste batzuen antzekoa den arren, eta ediziorako tresnarik izan ez arren, badu ageriko abantaila bat: gaztelaniaz dago (euskaraz ez, ordea). |

## Ekitaldiak kudeatzea

| | |
|---|---|
| stage online event HQ management | Euskadin garatutako tresna, ekitaldiak kudeatu eta sarrerak online saltzeko. Aplikazioa doakoa da ekitaldiaren antolatzailearentzat, baina komisio bat kobratzen du saltzen den txartel bakoitzeko (ez dago komisiorik doako ekitaldiak badira). |
| eventbis | Stagehg-ren antzeko aplikazioa da, ekitaldiak kudeatu eta sarrerak online saltzeko. Aurrekoan bezala, saldu dituen txartelen araberako komisioa kobratzen dio antolatzaileari. |

## Proiektuak kudeatzeas

| | |
|---|---|
| zyncro | Onlineko intranet bat balitz bezala, norberari egokitutako lankidetza-eremu bat sortzeko aukera eskaintzen du. Hainbat funtzionaltasun ditu, dokumentuak partekatzeko, lanak esleitzeko, eta abar. Doako bertsioak mugatuta ditu lekua eta erabiltzaile-kopurua. |

## Merkataritza-kudeaketa

| | |
|---|---|
| GestiónTpv Ahorro de costes | Doako bertsioan, merkataritza-kudeaketarako hainbat utilitate eskaintzen ditu. Ordaindutako beste bertsio bat ere badauka, online-denda bat sortzeko. |
| mailchimp | Buletin elektronikoak diseinatu, banaketa-zerrendak kudeatu eta geure e-mailing kanpainen jarraipena egiteko aplikazioa. Doan da, asko jota 2.000 kontaktu dituzten banaketa-zerrenden kasuan. |

Horiez guztiez gain, badira tresna gehiago ere, kategoria horietan eta beste kategoria batzuetan. Adibidez, komunikazio-tresnak (Google Talk, Skype…), birusen kontrako aplikazioak (Panda ActiveScan, Virustotal…), enpresa-kudeaketarako aplikazioak (MySaasPlace Contabilidad, Nemon RR.HH…), eta beste asko. Gogora dezagun horietako batzuk aurreko aleetan aurkeztu dizkizuegula[1]. Ondoren, beste orrialde eta dokumentu batzuetarako estekak eskainiko ditugu. Bertan, Cloud Computing-aren inguruan sakondu eta online-softwarearen eskaintza, berrikuntza eta joerei buruzko informazioa aurkitu ahalko du irakurleak.

1 Fitxategiak biltegiratzeko, transferitzeko eta konpartitzeko aplikazio praktikoak (2011ko maiatza) / Musikarako aplikazio baliagarriak (2011ko ekaina) / Facebook pertsonalizatzeko aplikazioak (2011ko urria)

## Gehiago jakin nahi baduzu...

- Portal SaaS
- Lehen urratsak Cloud Computing-ean, ETEentzat (Solid Rock IT-ek prestatutako dokumentua, Araba Enpresa Digitalak Cloud Computing-ari buruz antolatutako mintegirako)
- FAQ Cloud Computing
- Euro Cloud(SaaS eta Cloud Computing enpresa-hornitzaileen Elkarte Europarra)
- Wwwhat's new Webeko aplikazioak, marketina eta albisteak
- http://www.cloudtweaks.com
- http://www.ticbeat.com/
- http://canaltic.com
- Consumer: Cloud computing-eko aplikazioak
- Segurtasun-dekalogoa hodeian, Acens-en eskutik
- Datuak Babesteko Espainiako Agentzia

**Kultura 2.0ren inguruko zer beste gai aipa genitzake hurrengo prestakuntza-piluletan?**
**(ahalik eta hobekien zehaztu)**

Bidali e-maila honako helbide honetara: kulturabehatokia@ej-gv.es